

## AZKEN HELBURU KOMUNA

Plan honen jatorrizko helburua da **elikaduraren bitartez osasuna sustatuko duen ingurune bat ezartzea** eta, horrela, hipertentsioaren, hiperkolesterolemiaren, obesitatearen, diabetesaren edo gaixotasun kardiobaskularren - besteak beste - goranzko joera etetea.

Funtsezkoa da, halaber, profesional talde espezifikoei zein herritarrei, oro har, prestakuntza, informazioa eta baliabideak lortzeko bidea erraztea.

Azken batean, **elikadura egokiaren inguruko sentsibilizazioa areagotzea eta elikadura egokirako estimulua eta aukerak sortzea** bilatzen da, herritarren, administrazioen eta elikagaiak eskaintzen dituzten edo pertsonen elikadura ohituretan aktiboki eragiten duten sektoreen lankidetzaren bitartez.



**Osasuna sustatu  
elikaduraren bitartez**